

Heriotzaz



Lander GARRO
 Idazlea

Txillardegi hil da. Heriotzak badu zerbait groteskoa. Hildakoa imajinatzen duzu mantapean telebistari begira, hilurren daudenen keinu joanarekin, eta gero azken arnasa, eta bere gorpu pisua, maneiatzeko zaila eta aparatosoa. «Hala behar du», diozu zure artean. Denok izango gara hilotz. Baina derrigorrezkotasun horrek ez du indignidadearen zaporea gozaten. Zergatik pasa behar dugu heriotzaren trantzetik? Desager gaitezen hil gabe, itsasoan misterioski desagertzen diren ontzi zaharren gisara. Poetak esango du: joan zen, lanbropean betiko. Eta hortxe amaituko da komedia txarra den bizitza. Ze bizi gaitzeko nahi dugun grina guztiz, eman diezaiokegu geure denbora besteei, besteen alde. Izan gaitzeko fundatzaile, aitzindari. Baina heriotzaren aurreko pausoak beti izango dira dardariak eta zitalki humanoak, hain gorpuaren amaierari lotuak, hain fisiologikoak: Zergatik? Zertarako? Norbait hiltzen denean, gauza positiboak bilatzen saiatzen gara. Esaten dugu bere itzala guretzako aterpe izango dela. Izango dela gida, itsas argi. Baina heriotza akabera da, gaitz guztien paradigma terribleena. Txillardegiren ile zuri-grisak datozkit akordura, ez dakit zergatik. Irudimeneren eta bihozkada guztien apetak dira: ematen digute irudi bat edo beste, haiek erremediatzeko aukerarik utzi gabe. Bere eskua ikus dezaket, ileak orrazteko zeukan keinu horrekin, atzeraka eginez. Noblezia ikusgarria zeukan, keinu hura bere gabardinarekin eta bere betaurreko beltzekin egiten zuenean, ematen zuten Salvador Allende, ematen zuten Gabriel Aresti edo Rodolfo Walsh. Baina orain hilik da. «Hala behar du», errepikatzen dut neure artean, baina horrek ez dit konsolamendurik ekartzen.


KLIK



1.075 kilos de peso... ¡en canal!

Se llamaba Ven, un toro de siete años que fue sacrificado ayer en el Matadero Frigorífico Donostiarra (Mafrido). Un animal enorme de más de tonelada y medio de peso (1.580 kilos exactamente) y 1,70 metros de alto, nacido y criado en el caserío Agite de Azpeitia. Durante los últimos años, su dueño, Antonio Olaizola, lo presentó a multitud de campeonatos –tanto en Euskal Herria como fuera de nuestras fronteras–, llevándose a casa varias txapelas. Fue vendido al hernaniarra Mikel Lujanbio, que ya

lo exhibió en la plaza Okendo de Donostia en la pasada feria de Santo Tomás –llamando la atención de la gente por su increíble tamaño– y ayer lo llevó a Mafrido para su sacrificio. Los operarios, tras darle muerte con un disparo en la frente y prepararlo en canal, lo partieron en dos: la primera mitad dio un peso de 544 kilos y la segunda, 531. Esos 1.075 kilos de carne han sido comprados por un carnicero francés que reside en un pueblo cercano a Toulouse. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS



Motel antzean, baina epel jarraituko du

EGURALDIA GAUR. Joxe LANDA. Eutsi egingo dio onaren mailari. Tenperaturak gora egingo du beste pixka bat, eta bai goizekoa eta bai gerokoa ere epel puntu nabarmenarekin sumatuko ditugu. Hala, giro atsegina egingo zaigu, hego ukituko haizea geldi eta ostarteak nagusi direla. Iluntzerako goibeltzen joango da, ordea. Haizeak mendebaldera eginez, giroa petraldu, eta euria hasiko da gauetan.